

Inicio > Ocio y cultura > Cultura

SENTIMENDUEN EGUNEROKO ASKEA

Sentimenduen eguneroko askea

AMAIA SANTANA - Domingo, 21 de Octubre de 2012 - Actualizado a las 05:40h

☆☆☆☆☆ (1 voto) | 3 comentarios

Twitter 1

Recomendar 3



Asier Huegun, bere bahiketa kide izan zen Reini alemaniarrekin, otordu batean. (Tlalparta)

BILBO

KAZETARI guztiak berdinak zarete!", aurpegiratu zion Asier Huegunek Gari Udaberi. Esaldi hori izan zen *Kolonbian bahituta. 74 egun ELNren esku* (Txalaparta, 2012) liburuaren lehendabiziko hazia. Asier Huegunek (Donostia, 1974) urte sabatikoa hartu zuen 2003an eta Hegoamerikara jo zuen. Kolonbian zegoela, ELNko gerrilla batek bahitu zuen bera eta beste sei lagun. 74 egun latz pairatu ondoren aske utzi zuten eta bere jaioterrira heldu orduko prentsaurreko bat eman zuen, hedabideen jakinmina asetu nahian. Bukatutakoan, kazetariari eskatu zien bakean uzteko denboraldi batez. Bere egunerokotasunera itzuli nahi zuen lehenbailehen (eta lortu egin du: Donostian bizitzen jarraitzen du, hiru alaba ditu eta betiko lanpostuan dihardu).

Sei hilabete iraun zuen errespetuzko isilune mediatikoak. Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan Gari Udabe (Usurbil, 1975) zuen zain donostiarrak. Elkarrizketa luze eta mamitsu baten ondoren, kafe-makinan elkartu ziren biak. Huegunen eguneroko urdin ospetsuaz ohartuta -bertan idatzi zituen bere gogoetak bahitua izan zen bitartean-, *amua* bota zion Udabek: "Aizu, ez duzu pentsatu hau argitaratzea?". Baietz erantzun zion, hasiera batean liburu bat kalera-tzea helburutzat ez zuen arren. "Nire inguruko jendeareztat zerbait berezia egin nahi nuen eguneroko horrekin, hots, bertan jaso nituen esaldi solteak, sentimenduak-eta garatzea", azaldu du Huegunek. Hala ere, idaztearen zale ez dela aitortzen du, eta arazo batekin topatu zen idazterako orduan: "Esaldi errepikakorrak sartzen nituela ohartu nintzen, antzeko aditzak,... Ez nuen nire burua gai ikusten bizitako guztia hitzetara pasatzeko". Horra hor abagunea Udaberentzat. "Nik lagunduko nizuke", aukeran proposatu zion. Handik egun pare batera kazetariak Huegunen deia jaso zuen. Prest zegoen bizitako esperientzia gogorra berriro azaleratzeko.

Astean behin edo bitan, Huegun bere Oiartzuneko etxean batzen zen kazetariarekin eta egunez egun, unez une, bahiketaren nondik-norako guztiak kontatzen zizkion xehetasun osoz. "Prozesu hau bereziki zaila izan da niretzat -onartzen du Huegunek-, bahiketa bukatu eta ondorengo sei hilabetera gertatutako guztia birgogoratu behar izan nuen eta".

Grabagailua piztu aurretik, Huegunek *etxeko lanak* egin behar zituen eta bere burua *birkokatu* bizitako egoera bakoitzean. Oroit-zapen eta sentimendu guztiak ahoskatzeko esfortzu horrek 30 ordutik gorako grabazioa ekarri zuen berekin. Orduan heldu zen solasaldi horiek guztiak transkribatu, idatzi eta *orrazteko* unea.

Edukiaren egiturari dagokionez, eguneroko baten eskema jarraitzea argi izan zuten biek hasieratik. Horrez gain, bahiketa egunez egun kontatu ahala euskal prentsan agertutako titularrak tartekatzen dira liburuan zehar. "Gure asmoa zen nolabaiteko konparazioa egitea euskaldunok orduan irakurtzen genituen albisteen eta Huegunek berak jasotzen zituen berrien artean", argitu du Udabek. "Istoria bere gordintasunean kontatu nahi izan dugu, beraz, gertakizun guztien berri eman ezezik, saiatu gara ahalik eta sentimendu gehien azaltzen". Horrela, bahituen bizi-baldintza penagarrien berri ematen da liburuan: gizazpiko *maratoiak* oihanean zehar, orduak eta orduak ezerezean -"bakarrik eta bakardadean"-, atsedeen eskaseko gau izoztuak, euri zaparrada gogorak, jakien eskasia, eltxoen etengabeko eraso... eta beldurra, kezka hala nola amorrua une oro...

Aukera zuen bakoitzean, egoera lazgarri hori gerrillariari aurpegiratzen zien Huegunek, hainbatetan sarkasmo osoz. Esaterako, bahiketaren lehenengo egunetan *España* zeritzoten ELNkoek Hueguni. *Ezizen* hori entzuten zuen bakoitzean, donostiarrak bere burua kontrolatu behar zuten eta maiz, *España* en-tzuten zuenean "una grande y libre" marmar egiten zuten.

Bahitzeak ere ekarri zuen edo-zein bizikidetzari datxezkion filiak eta fobiak, adiskidetasunak eta errietak. Bahiketa-kide ziren lau israeldarrekin harreman nahiko txarra izan bazuen, Huegunek adiskidetasun sendoa garatu zuen Mark ingelesa eta Reini alemaniarrekin. Azken horrekin oraindik mantentzen du erlazioa, dela telefonoz, dela internet bidez. Gainera, biak ala biak bisitan izan dira bakoitzaren bizilekuan. "Gure adiskidetasuna Kolonbian bizitakoaren ondorio da, eta lotura hori betirako da". Halaber, Antonio ELNko kide ohiarekin ere izan zen harremanetan bahiketa bukatutakoan. "Bahituta izan nintzen bitartean, bera zen ELNko kide guztien artean argien zuena bide politikoa zela irtenbidea, eta nik uste dut guri gertatutakoak zerikusia izan zuela gerrilla uzteko erabakian".

PRINTZIOPEI EUTSI Udabek baieztatzen du *Kolonbian bahituta* liburuan agertzen den Asier Huegun "benetako Asier" dela. "Bahituta izan zen denbora osoan sekula ez zuen koherentziarik galdu, orduan esandako guztia da benetan pentsa-tzen duena, eta inoiz ez zituen bere printzipioak zalantzan jarri", txalotu du kazetariak.

Izan ere, Huegunek Kolonbiako nekazarien egoera eta nolokotasunak ezagutzeko parada izan zuen, Hegoamerikako herrialde honetan bi hilabete eman baitzituen bahitua izan aurretik.

2003ko urriaren 25ean, hau da, bahiketaren 44. egunean, zera ida-tzi zuen Huegunek bere eguneroko urdinean: "Hau dena bukatzean, zer egin behar dut nire bizitzarekin?". Itaun horren zioa orain argitzen du: "Behin aske utzitakoan nola erre-akzionatuko nuen beldurrez nin-tzen, baina orain esan dezaket esperientzia garrantzitsua izaki, liburu honekin nire bizitzaren atal hori itxi egin dudala. Bizitzak aurrera darrai, eta horretan darraigu".

Vista:
 Más texto
 Más visual

